

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA
Hezkuntza Sailburuordetza
Hezkuntza Ikuskaritza Nagusia

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
Viceconsejería de Educación
Inspección General de Educación

HEZKUNTZA IKUSKARITZAREN URTEKO PLANA

2018 – 2019ko IKASTURTEA

EAEko HEZKUNTZA IKUSKARITZA



**AURKIBIDEA****1.- SARRERA****2.- HELBURUAK****3.- 2018-2019ko IKASTURTEAN ESKU HARTZEKO OINARRIZKO ILDOAK****4.- HEZKUNTZA IKUSKARITZAREN PROZESUAK****5. BESTE JARDUERA BATZUK****6.- IKUSKARITZAREN PRESTAKUNTZA****6.- IKASTETXEAK IKUSKARIEI ESLEITZEA****7.- URTEKO PLANAREN EBALUAZIOA****8.- URTEKO PLANAREN GAURKOTZEAK****ERANSKINAK:**

I. ERANSKINA: IKUSKARITZAKO IKASTETXEETAN 2018-2019ko IKASTURTEAN EGIN BEHARREKO ESKU HARTZEAK AZALTZEN DITUEN KRONOGRAMA.

II. ERANSKINA: 2017-18ko IKUSKARITZA PLANAREN AZPIPROZESUEN ZEHAZTAPENAK

III. ERANSKINA:(2018-2019ko IKUSKARITZA PLANEAN GILTZARRI DIREN ADIERAZLEEN PANELA)

IV. ERANSKINA: PRESTAKUNTZA PLANAREN JARDUERAK

V. ERANSKINA: JARDURA ZUZENTZAILEEN ETA HOBEKUNTZA JARDUEREN PLANA

VI. ERANSKINA : IKUSKARITZAREN ZONALDEAK

VII. ERANSKINA: URTEKO PLANAREN GAURKOTZEAK

1.- SARRERA

Ikastetxeetan eta Administrazioiko beste toki batzuetan egin beharreko jarduerak artikulatzen dituzten bideak dira Hezkuntza Ikuskaritzaren Planak. Halaber, esku-hartze horiek ahalbidetzen dituen zerbitzuaren barne antolaketa ere azaltzen dute.

Ikastetxeetan esku-hartzeak eginez, irakaskuntza kalitatekoa eta zuzentasunean oinarritua izateko faktorea da Hezkuntza Ikuskaritza, hezkuntza-legeriak ematen dizkion eskuduntzen arabera.

Horretarako, haren jarduerak, araudia betetzen den edo ez ikuskatzea ez ezik, ikastetxeei laguntza ematea haien hezkuntza-proiektuak aurrera eramateko prozesuan, norberak bere burua ebaluatzeko prozesuen sustapena eta kanpo ebaluazioaren prozesuetan parte-hartzea ere hartu behar dituzte. Horiek horrela, ikastetxeek ikasle bakoitzari kalitateko hezkuntza-erantzun bat ematen laguntzen du, ikasteko eta haien hezkuntza-emaitzak hobetzeko prozesuetan arrakasta errazago lor dezaten.

Hezkuntza-administrazioari eta beste instituzio eta erabiltzaile batzuei dagokienez, egiten zaizkion errekerimendu eta eskaeretan lankidetzan aritzea da Hezkuntza Ikuskaritzaren funtzioa, baita esku-hartzea eta eskatzen zaizkion txostenak ematea ere, legezko bideak erabiliz.

EAEko Hezkuntza Ikuskaritzak hainbat urtetako planifikazio estrategiko batean txertatzen diren urteko planen bidez antolatzen ditu bere esku-hartzeak. Ildo horretan, 2018-2019ko Urteko Plan hau 2017-2020ko Hirurteko Plan Orokorren bigarren kurtsoari dagokio. Urteko Plan honen 2. eta 3. ataletan, Hirurteko Plan Orokorren helburuak aurrera eramateko, helburuak eta esku hartzeko funtsezko ildoak agertzen dira.

Urteko Planaren jarduerak, bere helburuak egitekoan adierazitako xedeak lortze aldera bideratzen dituen Hirurteko Plan Orokorrean hartutako ikuspegitik abiatuta, ondorengo prozesuetan taldekatzen dira:

- PR Ikastetxeen hezkuntza-erantzuna hobea izan dadin laguntzea.
- PR Arau-kontrola/ Eskubide eta betebeharrak bermatzea.
- PR Gatazkak ebaztea. Elkarbizitza.
- PR Programen jarraipena. Sistemaren helburuak.

Urteko Plana egiteko, Hezkuntza Saileko Sailburuordetza eta Zuzendaritza desberdinen eskaerak, Lurralde Arteko Koordinazio Batzordeak Zonalde Burutzekin egindako balorazioak, aurreko ikasturtean egindako jardueren analisitik abiatuta lortutako ondorioak, Ikuskaritzaren jardueren hartzaileak zein mailatan dauden pozik jakiteko inkesten emaitzak eta egindako auditorien emaitzak hartu dira kontuan.

2018-2019ko Urteko Planak aurrera eramateko prozesua eraginkorragoa izateko eta jarduteko irizpideak batu behar direla azpimarratzen jarraitu behar du. Lurraldean eta zonaldean egin beharreko jarduerak banatu beharko dituzte, lan-kargen arteko oreka eta eginkizunak aurrera eramateko orduan egon beharreko eraginkortasuna kontuan hartuta.

Ikuskarien prestakuntzak eta gaurkotzeak funtsezko garrantzia dute, esleitzen zaizkien funtzioak eraginkortasunez betetzeko orduan.

Ildo horretan, ahaleginak areagotzen jarraituko dugu, lana orientatze eta martxan jartzeko irizpideak bateratze aldera. Garrantzi handieneko jarduerari dagokienez, nola gauzatzen ari diren jakiteko eta hobekuntza-proposamenak eta prestakuntza-premiak zehazteko prozedurak ezarriko dira.

Azkenik, kudeatzeko sistemaren mantentzean, UNE-EN ISO 9001:2015 araudian ezarritako baldintzetara egokitzen hasi da Hezkuntza Ikuskaritza 2017-2018ko ikasturtean. Egokitzapen hori 2018-2019ko ikasturtean bururatu beharko da, baldintzak eta antolaketaren egituraren egindako aldaketak Ikuskaritzaren aplikazio informatikoan, V92n, sartuz.

2.- HELBURUAK

Urteko Plana eta berorretan ezartzen diren jarduerak 2017-20ko Hirurteko Plan Orokorraren helburuak betetze aldera zuzenduta daude eta plan horretan (Hirurteko Plan Orokorraren I. eranskina) definitzen diren jarduteko oinarritzko ildoekin bat datoz.

HELBURU OROKORRAK	URTEKO PLANAREN HELBURUAK
<p>1. Prozedurak ezartzea, ondorengo prozesuetarako Ikuskaritzak egin beharreko ekarpena hobea izan dadin:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hezkuntza-erkidegoa osatzen duten pertsonen legeriak ezagutzen dizkien eskubide eta betebeharrak erabili ahal izango direla bermatzea. - Esku-hartze kritiko eta aktibo baten bidez eskola-eremuko elkarbizitza hobetzea. 	<p>Arau-kontrolaren jarduerak</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Arau-kontrolaren jardueren ondoriozko informazioa izatea, zuzentzeko esku hartzea eta Administrazioari jakinaraztea. 2. Titulazioak errazago kontrolatzeko prozedura bat izatea. 3. Kanpo probak garatzeko prozesuari buruzko informazioa izatea, Administrazioari jakinarazteko. <p>Eskola-giroaren jarraipena BIZIKASI ekimena inplementatu den mailari eta salatutako jazarpen-kasuei buruzko informazioa izatea.</p>
<p>2. Antolaketa eta funtzionamendua, programak, irakaskuntza-praktika, zuzendaritza-funtzioa eta gainontzeko elementuak hobetzeko lagungarri izango diren proposamenak ikastetxeei eskaintzea, kalitateko hezkuntza-sistema bat lortzeko sustatze aldera.</p>	<p>Esku-hartzea, ikastetxearen premien arabera Ikasturtean zehar egindako ikuskatzearen ondoriozko hobekuntza-proposamenak ikastetxeei helaraztea, joan den ikasturtean egindako proposamenen jarraipena egitea eta Administrazioari jakinaraztea.</p> <p>Ebaluazioaren aldeko kultura ikastetxeetan sustatzea Ebaluazioen emaitzei buruzko hausnarketa eta analisia ikastetxeetan sustatzea.</p> <p>Pertsonen ebaluazioa Zuzendaritza-funtzioa: Zuzendaritzak hobetzen laguntzea, ebaluazio-prozesuaren bidez eta ikastetxe bakoitzaren egoeraren arabera. Irakaskuntza-funtzioa: Praktiketako fasea ebaluatuz irakaskuntza-funtzioa hobetzen laguntzea.</p> <p>Ikastetxeetan aldaketa metodologikoak inplementatzen laguntzea Prestakuntzaren ekimen globala zein mailatan inplementatu den jakitea eta Administrazioari jakinaraztea.</p>

<p>3.- Hezkuntza Ikuskaritzaren barne antolaketa, prestakuntza eta berorren jarduera gauzatzeko prozesua hobetzea, hizkuntz normalkuntza lortzeko, kudeatzeko, berritzeko, parte hartzeko eta antolaketa ebaluatzeko prozesuak sustatuz, Hezkuntza Ikuskaritzaren jardueren barne eta kanpo hartzaileen premiei eraginkortasunez erantzuteko.</p>	<p>Berriztatzearen zaintza -Ikuskaritzaren jarduera hobetzeko aurre egin beharreko arrisku eta aukerak zehaztea, arrisku eta aukera horiei aurre egiteko prozedurak identifikatzea eta haien eraginkortasuna ebaluatzea.</p>
<p>4. Sistemaren ebaluazioetan izandako parte-hartzeari eta beste organismo eta erakunde batzuekin izandako lankidetzari buruzko informazioa hezkuntza-administrazioari ematea, proposizioen bidezko balorazio teknikoaren bidez eta ikastetxeetan egindako ikuskatzetik abiatuta.</p>	<p>Sailaren programak aurrera eramateko prozesuaren jarraipena eta emaitzak. Programak aurrera eramateko prozesuaren jarraipenari buruzko informazioa Administrazioari jakinaraztea.</p>

Ondoren Hirurteko Planaren helburuak, aipatutako jarduerekin eta esku hartzeko ildoekin batera, azaltzen dira.

1. HELBURUA	OINARRIZKO ILDOA	18-19. JARDUERAK
<p>Ikuskaritzak ondorengo arloetan egin beharreko ekarpenak hobetzeko prozedurak ezartzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Indarreko legeriak hezkuntza-erkidegoa osatzen duten pertsoneri ezagutzen dizkien eskubide eta betebeharrak erabili ahal izango direla bermatzea. - Esku-hartze kritiko eta aktibo baten bidez eskola-eremuan elkarbizitza hobetzea. 	<p>Arau-kontrolaren jarduerak</p>	<p>Araudiaren ez-betetzeen jarraipena egitea. Titulazioak Kanpo proben kontrola</p>
	<p>Eskola-giroa</p>	<p>Bizikasi plana ezartzeko prozesuaren jarraipena egitea. Elkarbizitza-planen analisia (ikastetxeen lagina). Eskola-jazarpenaren kasuen jarraipena egitea.</p>

2. HELBURUA	OINARRIZKO ILDOA	18-19. JARDUERAK
<p>Antolaketa eta funtzionamendua, programak, irakaskuntza-praktika, zuzendaritza-funtzioa eta gainontzeko elementuak hobetzeko lagungarri izango diren proposamenak ikastetxeei eskaintzea, kalitateko hezkuntza-sistema bat lortzeko sustatze aldera.</p>	<p>Esku-hartzea ikastetxearen premien arabera egitea.</p>	<p>Koadernoan aurreko ikasturtean adierazitako hobekuntza-proposamenen jarraipena egitea.</p>
	<p>Ebaluazioaren aldeko kultura sustatzea:</p>	<p>Ikastetxearen Urteko Planaren- Memoriaren analisia, Lagina, definitutako irizpideen arabera)</p>
		<p>Eskola-emaizak: Eskola-emaizari buruzko hausnarketa eta analisia sustatzea.</p>
		<p>Kanpo ebaluazioetan esku hartzea. Hausnarketa eta analisia sustatzea.</p>
	<p>Pertsonen ebaluazioa:</p>	<p>Kalitatea Hezkuntzako ikastetxeek AURRERAKA ebaluazio-prozesuan parte hartzea.</p>
<p>Zuzendaritza-funtzioa: zuzendariak aukeratzeko prozesua. Ebaluazioa, ikastetxe bakoitzaren egoeraren arabera. Norberak bere burua ebaluatzeko prozesuak sustatzea proiekturik gabeko zuzendaritzetan.</p>		
<p>Irakaskuntza-funtzioa: irakaskuntza-funtzioa ebaluatzeko proposamen bat egitea. Irakasleentzako LEPen ondoriozko praktiketako faseen ebaluazioa.</p>		
<p>Ikasleen gaitasunak aurrera eramateko prozesua sustatuko duten aldaketa metodologikoak inplementatzen laguntzea: programazioak: (planifikazioa, metodologia eta ikasleen ebaluazioa).</p>	<p>Ikasleen gaitasunak aurrera eramateko prozesura zuzendutako aldaketak ikastetxeetan ezartzeko prozesuaren jarraipena egitea (Ikastetxeen lagina: STEAM). Jarraipen horretan bildutako informazioaren ondoriozko jarduerak.</p>	

3. HELBURUA	OINARRIZKO ILDOA	18-19. JARDUERAK
<p>Sistemaren ebaluazioetan izandako parte-harteari eta beste organismo eta erakunde batzuekin lankidetzan egindako jardueri buruzko informazioa hezkuntza-administrazioari jakinaraztea, proposizioen bidezko balorazio teknikoaren bidez eta ikastetxeetan egindako ikuskatzeak abiatuta.</p>	<p>Saileko programen (Hamaika Esku, Hauspoa, Duala, Ethazi, IGG, Irakurketa Plana, Bizikasi, ...) garapena eta emaitzak.</p>	<p>1 programak garatzeko prozesuaren jarraipena egitea (hizkuntza gaitasuna euskaraz, Hamaika Esku, Hauspoa, Duala, Ethazi, IGF2, Irakurketa Plana, Bizikasi, ...). Jarraipen horren ondoriozko txostenak Administrazioari helaraztea.</p>
	<p>Lankidetzan aritzeko beste jardura batzuk: atxikipenak, PEX Bach, Barematzea, EAU, etab ...</p>	<p>Lankidetzan aritzeko jarduerak egitea. Jardura horien eraginkortasuna hobetzeko, zerbitzu eskudunekin koordinatzeko prozedurak ezartzea.</p>
4. HELBURUA	OINARRIZKO ILDOA	18-19. JARDUERAK
<p>.- Hezkuntza Ikuskaritzaren barne antolaketa, prestakuntza eta berorren jardura aurrera eramateko prozesua hobetzea, hizkuntza normalkuntza lortzeko eta kudeatzeko, berritzeko, parte hartzeko eta ebaluazioa antolatzeko prozesuak sustatuz, Hezkuntza Ikuskaritzaren jardueren barne eta kanpo hartzaileen premiei eraginkortasunez erantzuna emateko.</p>	<p>Hartzaileei eman beharreko erantzuna hobetzea: txostenak, bisitak, ...</p>	<p>Ikuskaritzaren txosten eta bisitak baloratzeko prozedurak diseinatu eta ezartzea eta prestakuntza planifikatzea, txosten eta bisita horiek berrikusi eta hobetzeko.</p>
	<p>Euskara erabiltzeko planaren jardura esanguratsuenak aurrera eramatea.</p>	<p>Euskara erabiltzeko plana aurrera eramateko prozesua eta prozesu horren jarraipena egitea. Ikuskaritzaren prozesuetan sortutako dokumentazioa hizkuntzari begira gaurkotzea. IRALE programak Hezkuntza Ikuskaritzari eskaintzen dizkion aukerak erabiltzea.</p>
	<p>Ikuskaritzaren antolaketa:</p>	<p>Barne komunikazioa: Barne komunikazioaren prozesua berrikustea.</p> <p>Giltzarri diren azpiprozesuen arriskua aztertzea. Egi9ndako hausnarketa estrategikoaren arabera prozesuak eta azpiprozesuak berrantolatzea. Prozesu eta azpiprozesuen antolamendu berrirako, V92 aplikazio informatikoa gaurkotzea. Autoebaluazio-zerbitzua (EFQM ereduaren arabera) erabiltzea.</p> <p>Ikuskaritzako LEP deitzea. Lanpostu hutsak betetzeko eta hautagaien zerrendarako deialdiak.</p>
	<p>Ikuskaritza-funtzioaren ebaluazioa.</p>	<p>Prozedura zerbitzu-eginkizunetan ari diren ikuskariei aplikatzea. Ikuskaritza-funtzioaren gaitasunen matrizea gaurkotzea.</p>
	<p>Beste instituzio batzuekin lankidetzan aritzea eta dimentsio europarrean sakontzea.</p>	<p>Beste ikuskaritza eta antolaketa batzuekin lankidetzan-jardueretan aritzea. Nazio eta nazioarte mailako gertakarietan eta Erasmus + proiektuetan parte hartzea.</p>
	<p>Berriztatzearen zaintza.</p>	<p>Gertakari desberdinetan parte hartzean lortutako informazioaren analisia, erabakiak errazago hartzeko. Beste antzeko instituzio batzuekin konparazioak egitea. Arrisku eta aukerei aurre egiteko neurriak planifikatzea.</p>

3.- 2018-2019ko IKASTURTEAN ESKU HARTZEKO OINARRIZKO ILDOAK

Esku hartzeko 2017-20ko Hirurteko Plan Orokorraren oinarrizko ildoak erreferentzia-markoa dira eta erreferentzia-marko horretan aurreikusten diren hirurteko helburuak lortzeko lagungarri diren urteko jarduerak sartzen dira.

2018-19ko ikasturtean esku hartzeko oinarrizko ildoak hiru multzotan aurkezten dira:

1. multzoa: Ikastetxeen ikuskatzeari lotutakoak.
2. multzoa: Ikuskaritza Zerbitzua bera hobetzeari eta garatzeari lotutakoak.
3. multzoa: hezkuntza-administrazioarekin lankidetzan aritzeari lotutakoak.

1. multzoa: Ikastetxeen ikuskatzeari lotutako esku hartzeko oinarrizko ildoak.

Egiten dituen esku-hartzeen bidez, hezkuntzarako eskubidea bermatzeko laguntza eraginkorra eman eta ikastetxeek kalitateko erantzun bat eskaintzea sustatu behar du Hezkuntza Ikuskaritzak, kalitateko erantzun horren bidez ikasle guztiek ikasteko prozesuetan eta garapen pertsonal, sozial, emozional eta profesionalean arrakasta izan dezaten.

Bestalde, ez da Hezkuntza Ikuskaritzaren funtzioa, ikastetxeen eta hezkuntza-sistemaren egoerari buruz Administrazioari informazioa eta aholkularitza ematen dizkion eragilea den aldetik, ahaztu behar, ikastetxe eta hezkuntza-sistema horiek hobetzen laguntzeko erabakiak errazago hartze aldera.

Horretarako, izaera proaktiboko eredu bat aukeratu du EAEko Hezkuntza Ikuskaritzak ikastetxeetan esku hartzeko orduan. Eredu horretan, ikuspegi global eta sistemiko batetik abiatuta, ikastetxeetan egiten diren jarduera guztiak integratzen dira eta haien artean dituzte harremanak. Hori guztia ikastetxeen ezaugarriak, funtzionamendua eta jarduera ezagutze aldera; izan ere, behar diren analisia eta balorazioa egin ondoren, ikastetxeek eskola-erkidegoari eta, oro har, gizarteari, eskaintzen dioten hezkuntza-zerbitzuaren kalitatea hobetzen laguntzeko proposamen baliotsuak egingo dira.

Esku hartzeko era horrek Ikuskaritzak ikastetxeetan egiten dituen jarduera guztietan du eragina; izan ere, jarduera horiek bat etorri behar dute hirurteko eta urteko planetan planteatutako helburuekin.

Marko horretan, esku hartzeko ildo batzuk definitzen dira urtero eta ildo horiek aurrera eramateko prozesuek ondorengo puntuak errazten dituzten tresnak dituzte oinarri: ikastetxearen elementu desberdinak, eraginkortasunez jokatzeko agian beharko liratekeen datuak jaso eta berorietara sartzea, datuak Erkidego mailan iraultzea eta, Ikuskaritzaren jarduerak izan beharreko malgutasunarekin, orientazioa eta homogeneizatzea. Tresna horien artean, besteak beste, ondorengoak nabarmentzen dira:

a) Ikastetxea bisitatzea

Ikuskariak egin beharreko bisitaren garrantzia aitortzen da, ikuskatzeko eta ikastetxe baten errealitatea alderdi guztietan ezagutzeko teknika den aldetik, antolaketa-alderditik pedagogiaraino. Horiek horrela, ikastetxeetan esku hartzeko lan egiteko era nagusia da. Ikastetxearen errealitatea zuzenean ezagutzearen premiak eta garrantziak dute ikuskariak ikastetxea bisitatzearekin zerikusia eta, ondorioz, ikastetxea hobeto funtzionatzen laguntzeko proposamen konkretuak egingo ditu. Bisitak behar bezala planifikatzea lagungarri izango da haren helburuak lortzeko orduan.

b) Ikastetxearen koadernoak

Tresna hau elementu dinamikotzat jotzen da eta ematen dizkio ikastetxean egin beharreko lana planifikatzeko erraztasunak ikuskari bakoitzari, baita ikastetxean egiten den jardueraren jarraipena egiteko aukera ere.

Ikastetxe bakoitzaren funtzionamenduari eta Ikuskaritzaren jarduera esanguratsuenei lotutako informazio nabarmena jasoko da, baita esku hartzeko Urteko Planean definitutako ildo bakoitza garatzearen ondoriozko alderdi kualitatibo eta deskriptiboak ere. Ikastetxearen koadernoak ikastetxearen jarduera eta funtzionamendua agertu behar ditu ikasturte bakoitzean eta, etorkizunari begira, ezagutzea edo lantzea beharrezko edo interesgarriak izan daitezkeen alderdi horiek sartuko ditu.

Garrantzi berezia emango zaie erreferentziako ikuskariak egindako jardueren eta jarduera horien bidez lortutako ikastetxearen ezagutzaren ondoriozko balorazio, ondorio eta proposamenei. Balorazio, ondorio eta proposamen horiek erreferentziak izango dira, ikuskariak ikastetxean egin beharreko lanaren helburuak planifikatzeko orduan.

Ikuskaritzaren aplikazio informatikoan aldaketa bat egin da 2018-2019ko ikasturterako, ikuskariek, ikastetxe konkretu bat dela-eta, egindako edozein motatako jardueren (bilerak, ikastetxera egindako bisitak, egoitzan arreta ematea, telefono-deiak, ...) erregistroa errazteko asmoz. Erregistro horiek zuzenean egin ahal izango dira agendatik eta inprimatzeko aukera izango da, bai berezita, bai taldekatzeko irizpide desberdinen arabera filtratuz.

Era osagarrian, "ikastetxearen urteko ikuskatzea " deritzon jarduera bat gauzatuko da. Jarduera hori hausnartzeko eta ikuskariak ikastetxean egin beharreko jarduera planifikatzeko espazio bat izango da eta Ikuskaritzak ikuskatzeko egin beharreko jardueren egiazko balio erantsia diren ondorio, balorazio eta proposamenak azalduko ditu.

Ondorio, balorazio eta proposamen horiek guztiak ikastetxeen egoerari eta premiei buruzko datuak emango dituzte eta, beraz, funtsezko erreferentzia izango dira, Ikuskaritzaren Urteko Planak egiteko eta hezkuntza-administrazioari eman beharreko aholkularitza gauzatzeko orduan.

- c) **Hiruhileko jardueren eta galdekizunen formularioak.** Erkidegoari buruzko informazioa lortzeko datuak bildu eta ustiatzeko aukera ematen dute. Ikasturte honetan jasoko diren gaiak V92 aplikazioaren espazioan kokatutako agiri batean: ikastetxeen ikuskatzea. Ikastetxearen koadernoak, zehazten dira.
- d) Ikuskarrien jarduera erraztea helburu duten **argibide, orientabide eta ereduak.** Behar den AZn edota barne orrian kokatuko dira.

Ikuskaritzaren jardueraren sistematizatzea bera, kalitatea kudeatzeko sistemaren bidez, ikuskatzeko eredu honen zerbitzura dago eta beronen garapena errazten du, ematen baitu ikastetxearen inguruko jarduera guztiak integratzeko eta berorien jarraipena eta ebaluazioa egiteko aukera.

Zerbitzua koordinatzeko egitura desberdinen, Ikuskatze Batzordearen batez ere, sistemaren kontrola eta jarraipena egiteko tresnen, erabiltzaileak zein mailatan dauden pozik jakiteko prozesuen ... bidez egingo dira, batez ere, jarraipen eta ebaluazio hori. Jarraipen eta ebaluazio horiek jasotako datuak aztertzearen ondorioz sortzen diren Erkidegoaren txosten eta memorieta jasota geratuko dira.

Marko horretan, 2018-2019ko ikasturtean jarduteko oinarrizko ildoak ondorengoak dira:

1. HELBURU OROKORRA	1. Ikuskaritzak ondorengo puntuetan egin beharreko ekarpena hobetzeko prozedurak ezartzea: - Hezkuntza-erkidegoa osatzen duten pertsonen indarreko legeriak ezagutzen dizkien eskubide eta betebeharrak errespetatuko direla bermatzea. - Eskola-eremuko elkarbizitza hobetzea, esku-hartze kritiko eta aktiboaren bidez.
LOTUTAKO OINARRIZKO ILDOAK	1.1. Arau-kontrolaren jarduerak. 1.2. Eskola-giroaren jarraipena.

1.1. Arau-kontrolaren jarduerak.

Hezkuntza-erkidegoa osatzen duten pertsonen eskubide eta betebeharrak errespetatuko direla bermatzeko, ondorengoak bezalako kontrol-jarduerak egiten jarraituko du Hezkuntza Ikuskaritzak:

- Irakasleen prestakuntzarako ordutegia betetzea.
- Ikasleen absentismoaren kontrola.
- Batxilergoko eskola-egutegia.
- Dokumentazio akademikoa.
- Araudia ez-betetzeen jarraipena egitea.
- Kanpo proben kontrola.
-

Gainera, egindako jardueren emaitzak aztertuko dira, eraginkorragoak izatea sustatuko duten ondorioak lortze aldera.

1.2. Eskola-giroaren jarraipena: hezkuntza-erkidegoko kideen eskubide eta betebeharrak errespetatuko direla bermatzeko elkarbizitza kudeatzea.

Eskola-jazarpenaren kasuen edo elkarbizitzaren kontrako beste edozein portaera motaren jarraipena egiten jarraituko du Hezkuntza Ikuskaritzak.

Ikasturte honetan ondorengo jarduerak egingo dira:

- Eskola-jazarpenaren kasuen jarraipena eta elkarbizitza kudeatzea ikastetxeetan.
- Sailburuordetzak sustatzen duen “*Bizikasi*” plana aurrera eramateko eraren jarraipena egingo da. Marko horretan, elkarbizitza- eta hezkidetza-planen jarraipena, baita ikastetxeetan praktikan jartzeko prozesuarena ere, egitea aurreikusten da.
- Lankidetzan aritzea, haur eta nerabeen artean gerta daitezkeen babesgabetasun-, tratu txarren eta sexu-jazarpen eta abusuaren egoerak direla-eta, hezkuntzaren eremuan prebentzioa lantzeko eta jarduteko 2016ko azaroaren 15ean argitara eman zen protokoloa aplikatzeko orduan.

2. HELBURU OROKORRA	2. Antolaketa eta funtzionamendua, programak, irakaskuntza-praktika, zuzendaritza-funtzioa eta gainontzeko elementuak hobetzeko lagungarri izango diren proposamenak eskaintzea ikastetxeei, kalitateko hezkuntza-sistema bat lortzea sustatze aldera.
LOTURAKO OINARRIZKO ILDOAK	2.1. Ikastetxearen premien araberako esku-hartzea. 2.2. Ebaluazioaren aldeko kultura sustatzea ikastetxeetan. 2.3. Pertsonen ebaluazioa. 2.4. Laguntza ematea aldaketa metodologikoak ikastetxeetan ezartzeko prozesuan.

2.1. Ikastetxearen premien araberako esku-hartzea.

Erreferentziako ikuskari bakoitzak esku hartzeko premia handiagoa ikusten duen alderdi horien banakako jarraipena eta beste gai orokorrago batzuk, ikastetxe batzuei eragiten dietenak eta antzemandako premia /zailtasunei eman beharreko erantzunari edo irakatsi eta ikasteko prozesuaren edo ikastetxeen funtzionamenduaren alderdi batzuk hobetzen laguntzeari zuzendutakoei lotuta egon daitezkeenak, sartzan ditu.

Ilido horretan ondorengo jarduerak sartzan dira:

- Erreferentziako ikastetxeetan esku hartzeko helburuak planifikatzea, ikastetxea hobetzeko proposamenak egitea eta jarraipena egiteko Ikuskaritzarentzat berarentzat proposamenak.

Ikasturte bakoitzaren hasieran, ikastetxean egin beharreko jarduera planifikatuko du erreferentziako ikuskari bakoitzak. Esku-hartzea gauzatzeko helburuak formulatuko ditu eta, horretarako, aurreko ikasturtean koadernoan adierazitako hobekuntza-proposamenak hartuko ditu kontuan.

Ikasturteak bukatu ondoren, helburu horiek zein mailatan lortu diren baloratuko du eta gomendio berriak egingo ditu, datorren ikasturteari begira Ikuskaritzak berak egin beharreko jarraipena dela-eta.

Gainera, urtero egiten duen ikuskatze-jardueraren bidez jasotako informazioa aztertu eta baloratzearen ondoriozko hobekuntza-proposamenak helaraziko dizkio ikastetxeari.

- Erreferentziako ikuskari bakoitzak horrela erabakitzen badu, alderdi batzuetan esku hartzea, izan ere, alderdi horiek ikastetxeek hobeto funtzionatzeko era esanguratsuan laguntzen dutela aitortzen du *balio erantsi handiko ikastetxeen ezaugarri eta praktika onei buruzko ikerketak*,-. (Adibidez: irakasleen prestakuntza, ikasleen ebaluazioa, irakatsi eta ikasteko prozesuaren planifikazioa).

2.2. Ebaluazioaren aldeko kultura sustatzea ikastetxeetan.

Alderdi hori dela-eta, ondorengo jarduerak egingo dira 2018-19ko ikasturte honetan:

- Ikastetxeen ebaluazioen emaitzak ezagutu ondoren, emaitza horiek aztertu eta baloratzeko zuzendaritza-taldearekin bilduko dira ikuskariak. Bilera horietan emaitzei buruzko hausnarketa sustatuko dute eta barne eta kanpo ebaluazioaren prozesuen balioa azpimarratuko dute, ikastetxeak eman beharreko hezkuntza-erantzuna hobetzeko orduan.

- Ikastetxeen lagin batean memoriaren eta urteko planaren analisia. Analisi horretan hobekuntza-helburuak, kanpo eta barne ebaluazioen edo beste iturri nabarmen batzuen emaitzak analizatzearen ondoriozkoak, nabarmenduko dira.

-Urteko Plana, memoria eta zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa baloratzeko txostenetan 2017-18ko ikasturtean ikastetxeei helarazitako hobekuntza-proposamenen jarraipena.

. "Kalitatea Hezkuntzan " ikastetxeen sarearekin, Berritzegune Nagusiarekin, ISEI-IVEIrekin eta Euskalit-ekin lankidetzan aurrera eramaten ari den ikastetxeak ebaluatzeko AURRERAKA ereduaren etorkizuneko "Laguntzaileen Klubean " Hezkuntza ikuskariek parte hartzea.

2.3. Pertsonen ebaluazioa.

2.3.1. Ikastetxeak hobetzen laguntzeko, zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa.

Zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa egiten, funtzio hori hobetzea du ebaluazio horrek helburu, bederatzi ikasturte daramatza Hezkuntza Ikuskaritzak eta, ebaluazio horretan, ebaluatzeko prozesuari buruzko aginduak ditu erreferentziazat.

Ikasturte honetarako, ondorengo lanak aurreikusten dira:

- Proiektua duten zuzendaritzen ebaluazioa, ikastetxe bakoitzaren egoeraren arabera (9., 6., 5., 3. eta 1. ebaluazio-urtea).
- Norberak bere burua ebaluatzeko prozesuak sustatzea proiekturik gabeko zuzendaritzetan.
- Emaitzei buruzko txostena egitea, prozesu honek ebaluatutako zuzendaritzen hobekuntzan duen eraginari buruzkoa.
- Izandako esperientziaren baloraziotik abiatuta, prozedura berrikustea.
- Hirugarren ebaluazio-aldia inplementatzen hastea.

2.3.2. Irakaskuntza-funtzioaren ebaluazioa, funtzio horretan hobeto aritzen laguntzeko.

Ikasturte honetan ondorengo jarduerak egingo dira:

- Irakasleen ebaluazioari eta pertsonalaren selekzioari lotutako alderdi globalei edota partzialei aurre egiten dieten prozesu guztietan erreferentzia izango den irakaslearen perfila egiten bukatzea.
- Irakaskuntza-funtzioa ebaluatzeko eredu baten diseinua.
- Irakasleentzako LEPen ondoriozko praktika-fasearen ebaluazioa, *gela bisitatzea eta norberak bere burua ebaluatzeko ebaluazioaren sustapena* jardueretan sakonduz.
- Unibertsitateekin, irakasleen hasierako prestakuntzarako, eta irakasleak prestatzeko eskuduntzak dituzten erakundeekin, etengabeko prestakuntzarako, lankidetzan aritzeko prozesua sustatzea.

2.4. Aldaketa metodologikoak ezartzen laguntzea ikastetxeetan.

Gaitasunen araberako ikuspegi batek, gelara eramaten bada, aldaketa metodologiko bat dakar eta aldaketa horrek ondorengo exigentziak ditu: eginkizunetan erregulari lan egitea, jakintzak mobilizatu beharreko baliabideetat jotzea, arazoak konpontzera, edo proiektuen arabera, bideratutako ikaskuntza bat, ebaluatzeko era berriak ... Irakasleak erraztatzaileren edo bitartekariaren, gidaren edo laguntzailearen rola betetzen du eta, horretarako, estrategia intelektualak mobilizatzeko, ezagutzak aplikatzeko eta ikasleen jardura sustatzeko aukera emango duten "eginkizunak" edo ikaskuntza-egoerak diseinatzeko gai izan behar du.

Ildo horretan, Hezkuntza Ikuskaritzak ondorengo egingo du 2018-19ko ikasturtean:

- Prestakuntzaren ekimen globalaren markoan, proposamen metodologiko berriak ikastetxeetan ezartzeko prozesuaren jarraipena egingo du (Urteko Planaren eta Memoriaren jarraipena). Jarduera horren bidez lortutako informazioarekin, ikastetxeei eta Sailari egingo zaizkie proposamenak (ikastetxeen lagin batean).

Oinarrizko jardura-ildo horiek, ahal den neurrian, behar adina informazio ematen duten laginen bidezko jardueren bitartez egingo dira, edo lan-talde espezifikoak sortuko dira, esku hartzeko oinarrizko ildo batzuei aurre egiteko.

2. multzoa: Ikuskaritza Zerbitzua bera hobetzeari eta garatzeari lotutakoak.

4. HELBURU OROKORRA	3. Hezkuntza Ikuskaritzaren barne antolaketa, prestakuntza eta berorren jardura gauzatzeko prozesua hobetzea. Horretarako, hizkuntz normalkuntzarako, kudeatzeko, berrizatzeko, parte hartzeko eta antolaketa ebaluatzeko prozesuak sustatuko dira, Hezkuntza Ikuskaritzaren jardueren barne eta kanpo hartzailen premiei eraginkortasunez erantzuna emateko.
LOTUTAKO OINARRIZKO ILDOAK	3.1. Hartzaileri eman beharreko erantzuna hobetzea: bisitak, txostenak ... 3.2. Euskara erabiltzeko plana. 3.3. Ikuskaritzaren antolaketa. 3.4. Ikuskaritza-funtzioaren ebaluazioa. 3.5. Beste instituzio batzuekin lankidetzan aritzea eta dimentsio europarrean sakontzea. 3.6. Berriztapena zaintzea.

3.1. Hartzaileri eman beharreko erantzuna hobetzea: bisitak, txostenak.

Bisitak eta txostenak kalitatekoak izateak zuzenean laguntzen du ikastetxeei eta Ikuskaritzaren hartzaileri eman beharreko erantzuna hobetzeko orduan.

Praktika onei eta hobe daitezkeen alderdiei buruzko ondorioak lortzeko asmoz, ondorengo jarduerak egingo dira:

- Ikastetxeentzako txostenak eta Ikuskaritzaren bisitak, azpiprozesuetako talde arduradunen aldetik, baloratzeko prozedurak diseinatu eta ezartzea.
- Egindako txostenen lagin baten jarraipena egitea.
- Ikuskaritza Batzordearen ardurapean, *ikastetxea bisitatzeari* buruzko dokumentazioa berrikustea.

3.2. Euskara erabiltzeko plana.

Ahozko komunikazioak, idatzizkoak eta komunikazio telematikoak *Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilpena Normaltzeko Plan Orokorra (2013-2017)* eta geroago gauza daitezkeen planek xedatutakora egokitzeko, ondorengo jarduerak egin beharko dira:

- Euskara erabiltzeko plana aurrera eramatea eta berorren jarraipena egitea.
- Ikuskaritzaren prozesuetan sortutako dokumentazioaren hizkuntz gaurkotzea.
- IRALE programak Hezkuntza Ikuskaritzari ematen dizkion aukerak erabiltzea.
- Euskara Erabiltzeko Planean aurreikusten diren kalitateko komunikazioak sustatzea, testu zuzen, egoki eta argien bidez.

3.3. Ikuskaritzaren antolaketa.

2016-17ko ikasturtean egindako hausnarketa estrategikotik, barne eta kanpo auditorietatik eta urteko memorian jasota agertzen diren balorazioetatik lortutako ondorioak kontuan hartuta, ondorengo eginkizunak gauzatuko dira:

- Antolaketa-eredua berrikusten jarraitzea, Ikuskaritzaren funtzionamendua hobetzeko asmoz.
- 2017-2018ko ikasturtean ondorengo helburuekin sortu zen Ikuskatze Batzordearen jarduera sustatzea,- Lurralde Arteko Batzordeko kideek eta zonalde buruek integratzen dute,-:
 - Ikastetxeetan gauzatzen den jardueraren behatoki gisa aritzea, jardueren integrazioa, koherentzia eta elkarren arteko osagarritasuna bermatze aldera.
 - Hezkuntza-ikuskatzearen eredu holistikoa eta proaktiboa sustatzea.
 - Sistemaren ikuskatze orokorraren emaitzetatik abiatuta, administrazioarentzat eta zerbitzuarentzat berarentzat orientagarri izango diren ondorio eta proposamenak egitea.

- Lan-taldeen egitura era progresiboan hobetzeko prozesuan pertsonen lidergoa eta parte-hartzea sustatzea.

Egitura horrek ondorengo ezaugarriak izango ditu:

- Lan-taldeak bi mailatan ari izango dira: azpiprozesuko lurralde arteko taldean eta lurralde-taldeetan.
 - Azpiprozesuko lurralde arteko taldea: Ikuskaritza Nagusiko kide batek eta lurralde bakoitzeko ordezkari banak osatuko dute. Osatzaileetako batek taldeko arduradun gisa jokatu du.
 - Azpiprozesuko lurralde taldeak. Zonalde bakoitzeko arduradun banak osatuko dute. Haietako bat lurralde arteko taldeko kide izango da eta azpiprozesuaren ardura izango du lurraldean.
- Bi mailak integratzen dituzten pertsonen arteko koordinazioa eta prestakuntza indartzeko prozedurak ezarriko dira, ikuskariek zonaldeetan egin behar dituzten eginkizunak behar bezala gauzatzea sustatze aldera.

Arduradun horiek ari izango dira ikuskatze-batzordea osatzen duten zonalde burutzekin lankidetzan, zonaldeetan azpiprozesu bakoitzaren jardueren jarraipen eta kontrolean.

- Kalitate Batzordearen lidergoarekin, ondorengo puntuetan lan egiten jarraituko da:
 - Azpiprozesu guztien sailkapena eta izena berrikustea, Ikuskaritzaren helburuetarako funtsezkotzat jotzen diren horietan sakonduz,
 - Funtsezkoak diren azpiprozesuetan arrisku-analisia eta eragina,dokumentazioaren gaurkotzea eta jardueren fluxuak eta kontrola egitea. Hori guztia "Azpiprozesuaren liburuan " jasota geratuko da,
 - Ikuskaritzaren jarduerak Ikuskaritzaren aplikazio informatikora (V-92) sartzea,
 - Bikintasunerako
Euskal Fundazioaren (Euskalit) bazkide laguntzailea den aldetik, Ikuskaritzaren jarduerak gauzatzea.
 - Kalitatea kudeatzeko sisteman sakontzea, kudeaketa aurreratuaren eredurantz urratsak emanez.
 - Barne (horizontala eta bertikala) eta kanpo komunikazioa hobetzea.
 - Prozesuen mapara berriaren eta Ikuskaritzaren aplikazio informatikoaren (V92) egituraren arteko sinkronizazioa.

- Ikuskaritzako LEP deitzeko eskaera egitea Saileko arduradunei.
- Lanpostu hutsak betetzeko eta izangaien zerrendarako deialdiak egitea, Ikuskaritzako lanpostuak beteko direla bermatzeko.

3.4. Ikuskaritza-funtzioaren ebaluazioa.

Ekainaren 28ko 98/2016 dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzarena, definitzen da ebaluazioaren gaurko eredia eta ikuskaritza-funtzioan aritzeko behar diren gaitasun tekniko eta profesionalak, sozialak eta etiko eta profesionalak ditu erreferentziatzat.

Ebaluazio horren ikuspegitik, EAEko Hezkuntza Ikuskaritza zerbitzua hobetzeak bi alde ditu:

- Ikuskaritza zerbitzuan lan egiten dutenen banakako ebaluazioaren ondorioz gertatzen den hobekuntza,
- Zerbitzuaren hobekuntza, Ikuskaritzako kide guztien ebaluazioaren emaitzak ditugunean eta, beraz, zerbitzu osoan puntu indartsuak eta hobetu beharreko arloak antzeman ditugunean.

Halaber, aipatutako dekretuak xedatzen duenez, egindako lanak balorazio positiboa izatearen baldintzapean egongo da zerbitzu-eginkizunetan ari diren ikuskariei zerbitzu-eginkizun horiek luzatzeko aukera eta, horregatik, Ikuskaritzan zerbitzu-eginkizunaren egoeran ari diren pertsonen ebaluazioa egiten jarraituko dugu, zerbitzu-eginkizun horiek luzatzeko ezinbesteko baldintza den aldetik. Halaber, zerbitzuko gainontzeko kideen ebaluazioa ere egiten jarraituko da.

Ondorengo jarduerak egingo dira:

- Zerbitzu-eginkizunetan ari diren ikuskariak ebaluatzeko prozedura aplikatzea.
- Ikuskaritza-funtzioaren gaitasunen matrizea gaurkotzea eta plantila osoari aplikatzea, hobekuntza-arloak eta prestakuntza-premiak antzemateko helburuarekin.

3.5. Beste instituzio batzuekin lankidetzan aritzea eta dimentsio europarrean sakontzea.

Gaitasun profesionalak areagotzeko asmoz, Hezkuntza Ikuskaritzaren dimentsio europarra indartzeko prozesua sustatuko da. Horretarako, ondorengo jarduerak egingo dira:

- SICIk (*Standing International Conference of Inspectorates*) antolatzen dituen gertakari desberdinetan parte hartzea,- izan ere, erakunde laguntzaile bat da eta Europar Batasuneko herrialde eta eskualdeetako Hezkuntza Ikuskaritzak elkartzen dira erakunde horretan,-.
- Nazio eta nazioarte mailako gertakarietan parte hartzea: kongresuetara joatea eta txosten eta komunikazioak aurkeztea ...
- Prestakuntza-jarduerak: Job Shadowing Irlandan. Ikuskaritza irlandarrari lagunduz, ikastetxeetako prestakuntza-jardueretan parte hartzea.
- Etorkizunean Erasmus + programako KA2 jardueretan parte hartzeari begira, kide izan daitezkeenekin harremanak izateko beste prozesu bati hasiera ematea.
- Beste herrialde eta hezkuntza-sektore batzuetako kideekin lankidetzan sakontzea.
- Beste hezkuntza-ikuskaritzekin eta hezkuntza-ikerketari eta prestakuntza pedagogikoari lotutako beste erakunde batzuekin (Unibertsitateak, ISEI-IVEI ...) informazioa eta esperientziak trukatzeko.
- Beste ikuskaritza eta erakunde batzuekin lankidetzan aritzeko jarduerak aurrera eramatea.

3.6. Berriztapenaren zaintza.

Ikuskaritzaren funtzioetan etorkizunari begirako ikuspegi batekin aurrerapenak egiteko, joera pedagogiko, teknologiko, ... berriei eman behar zaie arreta berezia. Horretarako, Lurralde Arteko Koordinazio Batzordeko kideek osatuko duten lan-talde baten jarduera sustatuko da. Jarduera hori ondorengo puntuetan konkretatuko da:

- Nazio eta nazioarte mailako iturrietatik datozen ekarpen eta ideia berritzaileak jasotzea.
- Ekarpene eta ideia horiek analizatzea, erabakiak errazago hartzeko eta antolaketari eta gauzatzeko den jarduerari errazago aplikatzeko.
- Antzeko ezaugarriak dituzten beste instituzio batzuekin konparazioak egitea.
- Arrisku eta aukerak identifikatzea.

3. multzoa: hezkuntza-administrazioarekin lankidetzan aritzeko jarduerak.

Hezkuntza-administrazioari, erabakiak errazago hartzen lagunduko dioten proposamenen bidez, informazioa eta aholkularitza ematea da oinarrizko eta erkidego mailako legerian agertzen den funtzioetako bat.

Atal honetan jarduera batzuk jasota agertzen dira. Jarduera horiek, Ikuskaritzak esku hartzen duen ikastetxe bakoitzaren hobekuntzan egin nahi duen ekarpenarengatik, 1. multzoaren edukiarekin (ikastetxeen ikuskatzeari lotutakoak) lotura zuzena duten arren, ematen dute ere landutako eremuetan hezkuntza-sistemaren egoerari buruzko informazioa jasotzeko aukera.

Ikasturte honetan eremu horiek administrazioa sustatzen ari den programetako batzuk dituzte, batez ere, ardatz nagusiak; izan ere, aniztasunari eman beharreko arretari, metodologia berriak sustatzeari, hizkuntz gaitasuna garatzeko prozesua sustatzeari, STEAM estrategiari, emaitzak hobetzera zuzentzen den kudeaketa eraginkorrari, ikastetxe batzuek jasotzen dituzten aparteko baliabideei, irakasleen prestakuntzari, ... etab. i buruzkoak dira programa horiek.

Informazio horrek, izaera orokorarekin gehitu eta analizatzen denak, emango du hezkuntza-administrazioak erabakiak errazago hartzen laguntzeko proposamenak egiteko aukera.

Halaber, administrazioarekin kudeatzeko prozesuetan lankidetzan aritzeko beste jarduera batzuk sartzen dira ere atal honetan: atxikipenetan parte hartzea, lekualdatze-lehiaketen barematzeak, enplegatu publikoen diziplina-erregimenaren aplikazioa, Batxilergoko aparteko sariak, LEPetan ... parte hartzea.

4. HELBURU OROKORRA	4. Sistemaren ebaluazioetan parte-hartzeari eta beste organismo eta erakunde batzuekiko lankidetzari buruzko informazioa, proposizioen bidez balorazio teknikoen bitartez eta ikastetxeetan egindako ikuskatzeetik abiatuz, hezkuntza-administrazioari jakinaraztea.
LOTUTAKO OINARRIZKO ILDOAK	4.1. Saileko programak gauzatzeko prozesuaren jarraipena eta emaitzak. 4.2. Lankidetzan aritzeko beste jarduera batzuk.

4.1. Saileko programak gauzatzeko prozesuaren jarraipena eta emaitzak.

Hezkuntza Sailak planteatzen dituen programa desberdinen jarraipena egingo du Hezkuntza Ikuskaritzak eta hartuko du berorien ebaluazioetan parte, programa horietan planteatutako helburuak zein mailatan lortu diren zehazte aldera ondorioak ateratzeko asmoz eta erabakiak hartzeko informazio nabarmena emanez.

- Ondorengo proiektuen jarraipena egingo da:
 - 1) **Euskarazko hizkuntz gaitasuna hobetzeari lotutakoak:**
 - Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetara egiten diren ikuskatze-bisitetan, ikastetxe horiek 2018-2019ko ikasturtea antolatzeari buruzko ebazpenak xedatzen dituen **irakurtzeko aldiak** arlo edo irakasgai desberdinen planifikazioetan sartu dituzten edo ez egiaztatuko da.
 - **Irakurtzeko Plana** dagoen eta arloen programazioetan eragina duen egiaztatuko da.
 - **Hizkuntza Plana.** Hizkuntzetako departamentuak bateratzearen komenientzia, hizkuntza horiek marko integratu batean ikasteko tresnei koherentzia emateko, helaraziko zaie ikastetxeei.
 - **Harrera-gelak** instalatu behar diren Lehen Hezkuntzako ikastetxeei emango zaie laguntza, baita ikasle etorkinei arreta emateko **lotura-gelak** instalatzen diren HHIko ikastegiei ere.
 - 2) **Estrategia de educación STEAM Euskadi.** Difusión de esta estrategia a los centros que la desconozcan (<http://steam.eus/es/STEAM Euskadi hezkuntza-estrategia>. Estrategia hau ezagutzen ez duten ikastetxeetan hedatzea (<http://steam.eus/eus/>). 2018-2019ko deialdian selekzionatuak izan diren ikastetxeek proiektua Urteko Planean integratu duten egiaztatzea.
 - 3) **Hezkuntza Premien Indizea (INE):** Hezkuntza Premien Indizea aplikatuz baliabideak jaso dituzten ikastetxeek baliabide horiek erabiltzeko planifikazioa Urteko Planean sartu duten egiaztatuko da.
 - 4) Aurreko ikasturteetan egiten ziren beste programa batzuen jarraipena egiten jarraituko da, ondorengoak esate baterako:
 - Prestakuntzarako ekimen globala
 - Hezkidetzeta eta genero-indarkeriaren prebentzioa
 - Hauspoa programa
 - Hamaika esku programa
 - Bizikasi
 - Ethazi
 - Etab ...

Programa horiek guztiak, ikuspuntu desberdinetatik abiatuz, ikasleen emaitzak hobetzera bideratuta daude (ahultasun handiagoko egoera, curriculum-estrategia, estrategia metodologiko, antolaketa-estrategia ... desberdinak) eta hezkuntza-jardueraren eremu, eragile edo elementu desberdinei orientatuta daude.

Ikastetxeak hobetzen laguntzearen aldeko ikuspegi batetik egingo du programa horien jarraipena Ikuskaritzak, ikuskatzeko Ikuskaritza honen ereduaren arabera.

Urteko Plan honen “ikastetxeak ikuskatzea “ eranskinean zehaztuko dira jarraipen hori gauzatzeko prozedurak.

4.2. Lankidetzan aritzeko beste jarduera batzuk.

Jarduera desberdinak, irakasleak atxikitze prozesuak, lan-eskaintza publikoen epaimahaietan parte hartzea, Batxilergoko aparteko sariak, lekualdatze-lehiaketei buruzko barematzeak, kanpo proben kontrola ... esate baterako, aurrera eramateko prozesuan Hezkuntza Sailarekin lankidetzan jarraituko du Hezkuntza Ikuskaritzak.

3. HEZKUNTZA IKUSKARITZAREN PROZESUAK

Plan honetan azaldutako helburuak eta jarduera-ildoak betetzeko, Plan honen II. eranskinean era eskematikoan jasotzen den prozesuen bidezko kudeaketa-sistema baten bitartez antolatzen ditu bere jarduerak Hezkuntza Ikuskaritzak.

Hezkuntza Ikuskaritzaren kalitatea kudeatzeko sistemari erantzuna ematen dioten makroprozesu batzuek osatzen dute sistema hori:

- MP 01.- Estrategia, planifikazioa eta antolaketa.
- MP 02.- Zerbitzuak identifikatu eta ematea.
- MP 03.- Giza baliabideen kudeaketa.
- MP 04.- Agirien bidezko kudeaketa.
- MP 05.- Baliabide materialen kudeaketa.
- MP 06.- Neurketa, analisia eta hobekuntza..

”Zerbitzuak identifikatu eta ematea “ MP 02 makroprozesuaren bidez gauzaten dira zerbitzua emateko prozesuak eta makroprozesu hori da zerbitzuaren izateko arrazoia, haren jardueraren helburu nagusia. Makroprozesu horretan sartuta dauden prozesuak, halaber, azpiprozesu batzuetan bereizten dira eta haien bidez jarduera desberdinak antolatzen dira. Jarduera horiek, joan den 2017-2018ko ikasturtetik aurrera, lau prozesutan antolatu dira, jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzaren “ egitekoa “ azaltzen duen agirian definitutako helburuei begira taldekatzeko irizpidearen arabera.

Ondorengoak dira “zerbitzuak identifikatu eta ematea “ MP 02 makroprozesua antolatu den lau prozesuak:

- PR Ikastetxeek eman beharreko hezkuntza-erantzuna hobetzen laguntzea.
Ikastetxeen edota pertsonen, batez ere, ebaluazioarekin lotura duten azpiprozesuak. Ikastetxeen hobetzeko premiak zehazteko erabili behar dira azpiprozesu horiek. Izan ere, hobetzeko premia horiek urteko planak hobetzeko helburuetan jasota agertuko dira eta beroriei buruzko txostena emango du Ikuskaritzak. Txosten horien emaitzak administrazioari edo interesatuei berei helaraziko zaizkie.
- PR Arau-kontrola/Eskubide eta betebeharrak bermatzea.
Hezkuntza-erkidegoko kide guztien eskubide eta betebeharrak errespetatuko direla bermatzeari lotutako azpiprozesuak, titulazioei, eskola-ordutegia eta egutegia betetzeari, hezkuntza-premia espezifikoiei eman beharreko arretari, ikasleen eta irakasleen absentismoaren kontrolari buruzko araudia betetzen dela kontrolatuz. Gainera, Hezkuntza Ikuskaritzari edozein bitartekoren bidez helarazten zaizkion eskaera eta jakinarazpenei eraginkortasunez erantzuna emateko behar diren jarduerak ere prozesu honetan sartuko dira.

- PR Gatazkak konpontzea. Elkarbizitza. Ikastetxeetan elkarbizitza hobetzeari lotutako azpiprozesuak dira. Elkarbizitza-planak egiteko kontrola eta aholkularitza, eskola-jazarpenaren kasuen jarraipena, portaera zuzentzeko prozedurak, ikastetxe publikoetako pertsonalaren kontrako erasoak, funtzionario publikoen diziplina-erregimena eta babesgabetasunaren protokoloa hartzen dituzte.
- PR Programen jarraipena. Sistemaren helburuak. Lanbide Heziketako Sailburuordetzak (Ethazi, txandakako prestakuntza duala) eta Hezkuntza Sailburuordetzak (Hauspoa, Hamaika Esku, Bizikasi, Irakurketa Plana, prestakuntzaren ekimen globala, hezkidetzarako eta genero-indarkeriaren prebentziorako gida-plana, ...) martxan jartzen dituzten programa espezifikoek jarraipenari lotutako azpiprozesuak dira, ikastetxeek hezkuntza-sistemaren helburuak errazago lortzen laguntzeko.

UNE EN ISO 9001:2015 arau berrira egokitzeko antolaketa egiten ari den trantsizio-aldiaz baliatuz, azpiprozesu bakoitzak ematen duen balioaren ikerketa bat egin da eta, ondorioz, haien kopurua jaitsi da.

2017-2018ko ikasturtean ondorengo "azpiprozesuak" GILTZARRI gisa identifikatu dira:

- AZ 02 1005 Ikastetxeen hobekuntza Ikastetxearen Urteko Plana /MEMORIA
- AZ 02 1013 Praktiketako funtzionarioen ebaluazioa
- AZ 02 1020 Zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa
- AZ 02 3087 Eskola-jazarpenera /Bizikasi
- AZ 02 2003 Txandakako prestakuntza duala
- AZ 02 3001 Eskerak /Jakinarazpenak
- AZ 02 2064 Hamaika

Azpiprozesu giltzarri hauen zerrenda aldatu behar den edo ez aztertzea planteatzen da 2018-2019ko ikasturterako, Ikuskaritzaren jarduerak ikastetxeetan izatea espero den eraginari eta ikasleen eskubide eta betebeharrak bermatzeari begira.

Ondorengo urratsak emango dira:

- 1) Indarrean jarraitzen duten azpiprozesuak beren prozesuen barruan sailkatuko dira.
- 2) Azpiprozesuetako talde arduradunek bakoitzaren arriskuen analisi bat, baita inplikaturako baliabideena ere, egingo dute, puntu indartsuetan sakontzeko eta aukerez baliatzeko. Horretarako, azpiprozesuko taldeentzako prestakuntza espezifiko bat planifikatuko da.
- 3) Ateratzen den zerrendaren arabera gaurkotu beharko du kalitatearen eskuliburua Kalitate Batzordeak.

Azken ikasturteetan azpiprozesuak Hezkuntza Ikuskaritzaren aplikazioari gehitu zaizkiola eta, praktikan, jarduera guztiak aplikazio informatikotik gauzatu eta kontrolatzen direla kontuan hartuta, barne webaren funtzio osagarriari buruzko hausnarketa bat egin behar da, baita duen dokumentazio guztia berrikusi ere, dokumentazio hori eta aplikazio informatikoan dagoena bat etor daitezkeen. Kalitate Batzordeak egin beharko du, ikasturte honetan, lan hori.

5. BESTE JARDUERA BATZUK

Prozesu horiekin batera, administrazioarekin lankidetzan aritzeko jarduerak egingo ditu Hezkuntza Ikuskaritzak, prozedura desberdinetan parte hartuz eta Hezkuntza Saileko beste unitate batzuen ardurapean.

Jarduera horiek horrela sailka daitezke:

- 1) Lankidetzan aritzeko eskaerei erantzuten dieten jarduerak. Izan ere, eta jarduera horien konplexutasunarengatik, gainontzeko azpiprozesuak bezala definitu eta planifikatu behar ditu Ikuskaritzak berak.
- 2) Hezkuntza Saileko arduradunek eskatutako txostenak direla-eta egoera horri erantzuna ematen dieten jarduerak. Atal honetan Ikuskaritza zerbitzuaren edozein hartzaileraren eskariz edo Ikuskaritzaren beraren ekimenez, egindako ebaluazio-, kontrol- eta aholkularitza-jardueren ondorioz, sor daitezkeen txosten guztiak sartzen dira.
- 3) Parte hartzeko eta lankidetzan aritzeko eskaerei erantzuna ematen dieten jarduerak, jarduera horien jabea Ikuskaritza ez bada (epaimahaietan, batzordeetan, ... parte hartzea).

6.- IKUSKARITZAREN PRESTAKUNTZA

